

# LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IRAKURTZEKO TREBETASUNEN ERREGISTROA

Ikaslea: ..... Data: .....

	Barneratuta	Barneratzen	Oharrak
<b>INFORMAZIOA BILTZEA</b>			
Pertsonaiak, ekintzak, lekuak eta abar identifikatzen ditu.			
Testuko objektuak, lekuak eta pertsonaien ezaugarriak identifikatzen ditu, deskribapenen eta irudien laguntzarekin.			
Testuan aurkeztutako ekintzen segida antzematen du.			
Testuko datu zehatzak berreskuratzen ditu gai jakin bat garatu ahal izateko.			
Kontzeptuen edo ideien definizioak identifikatzen ditu: ezaugarriak, erabilerak eta beste objektu ezagunekin, gertaerekin edo ideiekin dituzten loturak.			
<b>ULERMEN OROKORRA</b>			
Ipuin, abentura edo kondairako kontakizunean zer gertatuko den imajinatzen edo aurreikusten du.			
Irudiez baliatzen da testuaren ideia orokorra zein den jakiteko edo iragartzeko.			
Gai nagusia edo ideia orokorra identifikatzen du.			
Testuaren edukia marrazki bidez identifikatzen edo irudikatzen du.			
Testuko pertsonaien arteko harremanak ondorioztatzen ditu.			
Azaldutako gertaeren kausak eta ondorioak identifikatzen edo ondorioztatzen ditu.			
<b>INTERPRETAZIOA</b>			
Bere zuzeneko esperientziako gertaerak testuetako edukiarekin lotzen ditu.			
Testuko pertsonaiak eta egoerak errealitateko edo beste testu bateko antzeko pertsonaia eta egoerekin alderatzen ditu.			
Testuan azaldutako gertaeren inguruan pertsonaiek zer sentimendu dituzten identifikatzen du.			
Pertsonaien arrazoiak eta motibazioak identifikatzen ditu.			
Irudi bat aztertuta, zer gertatzen den azaltzen du.			
Hipotesiak egiten ditu irakurketan oinarrituta.			
Bere ideiak marrazki bidez irudikatzen ditu.			
Testuko lagungarriak eta pistak erabiltzen ditu testuinguru desberdinetan dauden antzeko hitzen esanahiak asmatzeko.			
Loturak ondorioztatzen ditu.			
<b>EDUKIARI BURUZKO HAUSNARKETA</b>			
Testuaren mezu inplizititik abiatuta, ideia sinpleak ateratzen ditu.			
Benetako eta alegiazko gertaerak bereizten ditu kontakizun historiko eta mitologikoetan, komikietan...			
Pertsonaien ekintzak epaitzen ditu.			
Testu batzuk besteak baino nahiago dituela azaltzeko argudioak ematen ditu.			
Testutik ateratako informazioa alde aurreko ezagutzekin lotzen du.			
Bere ikuspuntuaren aldeko argudioak ematen ditu.			
Ondorioak ateratzen ditu.			
<b>FORMARI BURUZKO HAUSNARKETA</b>			
Testuaren egitura identifikatzen du.			
Espresio-baliabideak identifikatzen eta interpretatzen ditu.			
Gako esplizituak identifikatzen ditu ideia nagusiak ateratzeko (sarrera, izenburuak, azpiizenburuak, laburpenak...).			
Testuen egitura-motak bereizten ditu eta egitura bakoitzetik zer informazio atera dezakeen ondorioztatzen du.			
Generoak eta azpigeneroak identifikatzen ditu.			
Testu-motak bereizten ditu eta bakoitza dagokion helburuarekin lotzen du: bertsoa/musikaltasuna, oharrak/egilearen argibideak...			